

## FORU DEKRETUA

Nekazaritza Saila  
Mendi Zerbitzua  
Esp. zk.: 521-18

### **Onestea basogintzako makineria erosteko laguntzak arautzen dituzten oinarriak eta laguntza horietarako 2018ko deialdia.**

Arabako lurralde historikoaren ezaugarri nagusietako bat da menditsua izatea, eta mendi horietako gehienak publikoak izatea, horien kontserbazioa eta hobekuntza jabeen kontu delarik, haiek baimendu behar baitituzte eta kontratatu enpresa espezializatuak zura ateratzeko eta basoak egokiro kontserbatu eta mantentzeko beste lan batzuetarako.

Mendiek onura ugari eragiten dituzte, zeren eta produktu berriztagarriak eta ingurumenarekiko begirunezkoak fabrikatzeko beharrezkoa den lehengaiak hornitzen baikaituzte, eta zeregin garrantzitsua betetzen baitute ongizate ekonomiko, dibertsitate biologiko, karbonoaren ziklo global, oreka hidrológico, higaduraren kontrol eta hondamendi naturalen prebentzioan, eta, gainera, eginkizun sozial eta jostetazko bat ere bai.

Beste alde batetik, beharrezkoa da zura mugiarazteko gaitasuna hobetzea eta zura lehengai gisa balia dadin lagundu eta sustatzea, sektorearen lehiakortasuna gehituz eta egungo beharrianen mailan egoteko egin beharreko inbertsioak egin daitezen sustatuz.

Hori dela eta, Nekazaritza Sailak, 27/1983 Legearen 7. a) 9 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (azaroaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzkoa), eskumen eskusiboa du mendien gaien, eta, hala, bidezko deritzo basogintzako enpresa txiki eta ertainek basogintzako makineria eskuratzeko egiten duten inbertsioa sustatzeari, makineria mota horietako baliabideak berritzeko tresna modernoagoak eta teknologia berriagoekikoak eskuratuz, lanak errazago eta hobeto eta seguruago egitearren.

Kontuan hartuz laguntza lerro hau helburu estrategiko honen barruan dagoela: Basogintzako foru sektore publikoko dirulaguntzen 2017-2019 plan estrategikoko “Nekazaritzako azpiegiturak hobetzea”, zeina Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 29ko 921/2016 Erabakiaren bidez onetsi baitzen (ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 821 Erabakiaren bidez aldatu zen).



Kontuan hartuz, orobat, ezen Foru Gobernu Kontseiluaren 2018rako gastu aurrekontuan badela 40.1.01.42.01.770.00.07 partida, “Basogintzako makineriarako deialdia” izenekoa, 150.000,00 euroz hornitua eta, hain zuzen, laguntza lerro hauetarako,

Ikusirik aginduzko txostenak, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, hauxe

### **XEDATZEN DUT**

Lehena.- Onestea enpresa txiki eta ertainek basogintzako makineria erosteko laguntzak arautzen dituzten oinarriak; foru dekretu honen eranskinean ageri dira oinarriak.

Bigarrena.- Onestea 2018rako laguntza lerro honetarako deialdia, xehetasun hauen arabera:

Epea: Eskabideak aurkezteko epea hamabost egun balioudun izango da, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Kreditu erreserba: 150.000 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018 ekitaldirako gastuen aurrekontuko 40.1.01.42.01.770.00.07 “Basogintzako makineriarako deialdia” partidaren kontura.

Aukera izango da kreditu hori gehitzeko zenbateko gehigarriekin, 11/2016 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarritako mugen barruan (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako lurralde historikoaren dirulaguntzei buruzkoa), hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko ehunera arte, eta orobat aurrekontu partidaren edozergatik kreditua gehitzea gertatzen denean ere.

Hirugarrena.- Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan, eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteroko deialdien ebazpenen kontra berraztertzeak aurkeztuz gero, haiek ebazteko.

Laugarrena.- Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz.

**Ramiro González Vicente**  
Diputado GeneralDiputado General

**Eduardo Aguinaco López de Suso**  
Nekazaritza Saileko foru diputatua

**María Asunción Quintana Uriarte**  
Directora de AgriculturaNekazaritza zuzendaria

ERANSKINA



## 1. artikulua.- Xedea

Foru Dekretu honen xedea da basogintzako makineria erosteko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzea, basogintzako sektorearen lehiakortasuna sustatzearren, zura mugitzeko gaitasuna hobetzearren eta zura lehengai gisa erabil dadin bultzatzearren.

## 2.-. artikulua.- Pertsona eta erakunde onuradunak

Foru Dekretu honen aurreikusten diren laguntzen onuradun izango dira ETEak, banakako enpresariak eta sozietate zibilak nahiz ondasun erkidegoak, baldin eta 3. artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

## 3. artikulua.- Pertsona edo erakunde onuradunek bete beharreko baldintzak.

### 3.1. Baldintza orokorrak:

Ekonomia jarduera bat gauzatzea basogintzako sektorean, eta jarduera hori Arabako lurralde historikoan kokatuta dauden baso eta baso-eremuetan gauzatzea.

Sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan egon behar dira.

Ez izatea administrazio edo zigor arloko zehapenik dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galarazten duenik, eta ez izatea legezko debekurik horretarako ezgaitzen duenik, tartean sartzen direlarik sexu diskriminazioagatik gertatu direnak, 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenak ezarritakoaren arabera (4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa).

Itzulketa edo zehapen prozeduraren baten ez egotea.

Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela frogatzen duen ziurtagiria. Sozietate zibilek eta ondasun erkidegoek frogatu behar dute sozietateak nahiz erkidegoak eta bazkideek nahiz erkidegoek beterik eta egunean dituztela betebeharrak.

- Hala balegokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak beteta dituztela egiaztatu behar dute, 11/2016 Foru Arauak ezarritako eran (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako lurralde historikoaren dirulaguntzei buruzkoa).

### 3.2. Banakako enpresariaren kasuan, oro har, aurreko apartatuan ezarritako betebeharez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte:

18 urte baino gehiago izatea, eta 65 urte baino gutxiago, laguntza eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean.

Ekonomia jardueraren edo jarduera profesionalaren etekinak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren pean izatea.

### 3.3. ETEen kasuan, gainera, honako betebeharrak bete behar dituzte:



Legez eratuta egotea eta dagokion erregistroan izena emanda egotea, haren forma juridikoaren arabera.

250 pertsona baino gutxiago enplegatzea

Ez izatea beste enpresa batek edo hainbatek elkarrekin, zuzenean edo zeharka, ehuneko 25eko edo gehiagoko partizipaziorik dena delako ETE horretan; gainera, partizipazioak dauzkaten enpresa horiek, batera, 250 langile baino gutxiago erabili behar dituzte.

Urteko bolumen negozioa 50 milioi eurotik beherakoa izatea, edo urteko balantza orokorrean ez gainditzea 43 milioi euroak.

Sozietate egoitza eta zerga egoitza Araban izateko betebeharra betetzen dela joko da baldin eta ETEaren egoitza horiek Arabako lurralde historikoan badaude kokatuta eta gutxienez bazkideen % 50ek, sozietatearen kapital sozialaren gutxienez ehuneko 50eko partizipazio bat edukiz, Araban badute beren zerga eta sozietate egoitza.

Sozietate zibilen edo ondasun erkidegoen kasuan, bazkideen edo erkidego kideen ehuneko 50ek gutxienez eduki behar dute sozietatearen kapital sozialaren ehuneko 50, eta 18 urteak beteta eduki behar dituzte, eta 65 urtetik beherakoak izan, laguntza eskaera aurkezteko epea amaitzen den unean.

3.4. Foru Dekretu honen ondorioetarako, sozietate zibilak edo ondasun erkidegoak ETEen parekotzat joko dira.

4. artikulua.- Zer baldintza bete behar dituzten inbertsioek onartuak izateko.

Diruz laguntzeko modukoak izateko, inbertsioek baldintza hauek bete behar dituzte:

4.1. Diruz laguntzeko modukoa izango da basogintzako makineria eskuratzea zuhaitzak moztu eta zura basotik ateratzeko, hain zuzen, makina hauek: enbor errestagailuak, autokargatzaileak, prozesagailuak, basogintzako garabiak, zura ateratzeko basoko kableak, espalak egiteko makinak, tokian bertan birrintzeko, espalak egiteko eta/edo biomasa paketatzeako ekipoak, edo zura ateratzeko antzeko beste batzuk.

4.2. Makineriak berria izan beharko du, eta basogintzako aprobetxamendu edo zerbitzuetarako izan beharko du.

4.3. Ez dira diruz lagunduko:

Basogintzako bideak, gurpiletarako kateak edo trackak eta zura mozten den inguruetara eramateko diseinatutako zura prozesatzeko ekipo eta instalazio mugikorretarako inbertsioak.

Zazpi urte bete ez dituzten makinak ordeztzeko inbertsioekin lotuta daudenak.

Bigarren eskuko ekipoak eta makineria.

Eskuko erramintak, hala nola motozerrak eta antzekoak.

Basogintzakoaz besteko garraiorako ibilgailuak.



Pertsonak garraiatzeko ibilgailuak.

Obra zibileko makineria.

BEZa, bai eta beste edozein zerga edo tasa, ez dira diruz laguntzekoak izango.

5. artikulua.- Dirulaguntza mota, ehunekoa eta zenbatekoa.

5.1. Laguntzak zuzeneko dirulaguntzaren motakoak izango dira, onetsitako gastuaren gaineko ehuneko jakin bateko dirulaguntzak.

5.2. Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da inbertsio zenbateko onetsiei ehuneko 30 aplikatuz ateratzen dena.

6.-artikulua.- Hautatzeko irizpideak.

6.1. Dirulaguntza esleitzeko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauei jarraituz.

a. Pertsona onuradunaren tipologiagatik:

a.1. Deialdi hau ALHAOn argitaratzen den unean 41 urte baino gutxiago duten gazteek sustatutako inbertsio proiektuak: 5 puntu. Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatutako pertsona juridikoen kasuan, 5 puntu izango dituzte, baldin eta bazkideen ehuneko 50 gutxienez gazteak badira eta pertsona juridikoen kapital sozialaren gutxienez ehuneko 50 badaukate.

a.2. Emakumeek sustatutako inbertsio proiektuak: 5 puntu. Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatutako pertsona juridikoen kasuan, 5 puntu izango dituzte, baldin eta bazkideen ehuneko 50 gutxienez emakumezkoak badira eta haien artean pertsona juridikoen kapital sozialaren gutxienez ehuneko 50 badaukate.

Edonola ere, urteko deialdia ALHAOn argitaratzen den unean zenbat sustatzaile edo bazkide diren emakumezkoak hartuko da kontuan.

b. Enpresaren ezaugarrien arabera:

b.1. Kontratatutako langileen kopurua (urteko deialdiaren aurreko urteko abenduaren 31n):

0-5: 10 puntu.

6-10: 8 puntu.

11-15: 10 puntu.

16-25: 4 puntu.

26 baino gehiago: 2 puntu

b.2. Enpresak eskabidea egin aurreko urtean duen fakturazioaren bolumenaren arabera:

0,5 milioi eurora arte: 10 puntu

0,5 milioi euro baino gehiago, 5 milioi eurora arte: 8 puntu

5 milioi euro baino gehiago, 10 milioi eurora arte: 6 puntu

10 milioi euro baino gehiago, 15 milioi eurora arte: 4 puntu

15 milioi euro baino gehiago: 2 puntu

b.3. Deialdi hau ALHAOn argitaratu aurreko urtean formazio ikastaroak egin izana. Puntu hauek emango zaizkio, baldin eta onuradunak edo enplegatutak egiaztatzen badu formazio ikastaro etengabeetan parte hartu izana, gutxienez 20 ikastordu eginez, eta betiere ikastaro horiek beraren



produkzio jarduerarekin lotuta badaude: 5 puntu. 5 puntu emango zaizkio, baldin eta beraren bazkide eta/edo langileek formazio hori egiaztatzen badute.

c. Inbertsioaren bolumenagatik:

c.1. Makinerian egindako inbertsio bakoitzaren kostuagatik, inbertsioa espedientean ageri dela:

30.000 eurora arte: 15 puntu

30.001 euro eta 100.000 euro bitartean: 12 puntu.

100.001 euro eta 300.000 euro bitartean: 8 puntu

300.001 euro eta 500.000 euro bitartean: 4 puntu

500.001 eurotik gora: 2 puntu

6.2. Inbertsio plan batengatik gehienez eman ahal diren puntuak: 50 puntu.

6.3. Eskatzaile edo entitate bakoitzari dirulaguntzaren zer zenbateko dagokion determinatzeko, puntuaren balio bat ezarriko da, honela kalkulatuta:

Deialdiari egozten zaion guztirako kreditu aurrekontua zatitu egingo da pertsona eta entitate eskatzaile guztiek lortutako puntuen guztirako baturak ematen duen emaitzarekin, eta horrela lortutako emaitza izango da puntuaren balioa. Laguntzaren emaitza izango da puntuaren balioa eskabide bakoitzaren puntu kopuruarekin biderkatuta ateratzen dena, betiere 5. eta 7. artikuluetan ezarritako mugak errespetatuz.

Lehenbiziko esleipena egin ondoren ez bada artean aurrekontu kreditu guztia banatu, berriro kalkulatu da puntuaren balioa, behar beste alditan, eta, kasu horretan aintzat hartuko da sobera geratutako kreditua eta 5. eta 7. artikuluetan ezarritako mugak iritsi ez dituzten espedienteetako puntuen batura.

Nolanahi ere, beti ahitu beharko da eskura dagoen aurrekontu kreditu osoa.

6.4. Ez badago nahikoa kreditu baliagarri laguntza eskuratzeko betebeharrak betetzen dituzten eskabide guztietarako, hainbanatu egingo da, eskura den aurrekontu kredituari egokitu arte.

7. artikulua.- Gastu onargarriaren mugak.

7.1. Pertsona edo entitate onuradun bakoitzeko eta urteko diruz laguntzekoa izango den inbertsioa edo inbertsioaren batura gehienez ere 125.000 euro izango da, eta gutxienez 3.000 euro, oro har.

7.2. Inbertsio bakarra onartuko da eskatzaileko eta urteko.

8. artikulua.- Eskabideak aurkezteko epea, modua eta lekua.

8.1. Laguntza eskabideak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, edo Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetako edozeinetan, hargatik eragotzi gabe 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoa (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa); eskatutako inbertsioa hasi aurretik egin beharko da eskabidea, urteko deialdi bakoitzean ezarritako epean.

8.2 Laguntza eskabideak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta harekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:



8.2.1 Eskatzailearen NAN/IFZren fotokopia. Elkarre gisako ustiategiak badira, kide bakoitzaren eratzeko agiriaren edo NANaren fotokopia aurkeztu beharko da.

8.2.2. Zerga betebeharretan eta gizarte segurantzarekikoetan egunean egotearen ziurtagiria.

Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar pertsona edo entitate eskatzaileak Nekazaritza Sailari baimena ematea zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela adierazten duen ziurtagiria zuzenean eskuratzeko. Dena den, eskatzaileak berariaz adierazita uka dezake baimen hori, eta berak aurkeztu beharko ditu eskakizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.

8.2.4. Hala balegokio, hirugarrenen fitxa, banku datuekikoa, laguntza kobratzeko.

8.2.5. Erantzukizunpeko adierazpena, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko galarazten dion administrazio edo zigor arloko zehapenik ez duelakoa, eta horretarako ezgaitzen duen legezko ezin debekuk eragiten ez diolako, ezta sexu diskriminazioei dagozkienak ere.

8.2.6. Erantzukizunpeko adierazpena, ez egotekoa sartuta dirulaguntza itzultzeko prozedura batean edo zehapen prozedura batean, eta, hala balegokio, dirulaguntzak itzultzea dela-eta ordaindu beharreko betebeharrak ordainduta izatekoa, 38/2003 Legeak ezarritako eran (azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Orokorra).

8.2.7. Pertsona edo entitate eskatzailea izena emanda dagoen Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafea egiaztatzea; Arabako Foru Aldundian egon beharko du izena emanda, urteko deialdia argitaratu aurreko data batean.

8.2.8. Eskabidea aurkeztu aurreko urteko jardueren memoria, bai eta hirugarren pertsonetikiko eragiketaren urteko adierazpenaren 347 erdua ere, beren jardura Arabako lurralde historikoko mendietan gauzatzen dutela egiaztatzeko.

Enpresa berrien kasuan, lanak egiteko konpromisoa aurkeztuko da, eta laguntza emateko baldintza izango da konpromiso hori betetzea.

8.2.9. Erosi beharreko makinaren ezaugarrien xehetasunak eta aurrekontua, eta, horiekin batera, hiru eskaintza, hornitzaile banarena, salbu eta diruz laguntzekoak diren gastuen ezaugarri bereziak direla-eta ez badago merkatuan nahikoa entitate makinaz hornitzen dutenak edo eskaintzen dutenak. Kostuetan neurritasunez jokatzeko printzipioari jarraituz, inbertsio zenbatekorik merkeena hartuko da kontuan dirulaguntzaren kalkulua egiteari begira.

8.2.10 ETEen kasuan, gainera, eratzeko eskritura aurkeztuko da, dagokion Erregistroan behar bezala inskribatutakoa, eta baita ere eskabidea aurkeztu aurreko urteko enplegatutako kopurua eta fakturazio bolumena egiaztatzen duen dokumentazioa.

8.2.1. Erantzukizunpeko adierazpena, helburu horretarako beste laguntzarik eskatu ez izanarena, eta, eskatu baldin bada, zein entiteri eskatu zaion eta zer zenbateko jasoko den gutxi gorabehera.



8.3 Edonola ere, Foru Aldundiak beretzat gordetzen du dekretu honetan ezarritako laguntzak eskatzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei beharrezko deritzon dokumentazio osagarria eskatzeko eskubidea, eskaerak behar bezala baloratu ahal izateko.

8.4. Eskabidean akatsik edo oker edo osatu gabe emandako daturik ikusiz gero, eskatzaileari eskatuko zaio zuzen ditzala, jakinarazpena jaso eta 10 egun balioduneko epean, ohartaraziz ezen epe hori igaro eta ez badu zuzentzen edo osatzen, adituko dela atzera egin duela bere eskaeran, 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren konforme (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

8.5. Laguntza eskaeran eta esleitutako dirulaguntza ordaintzeko eskaeran edozein unetan egin ahal izango da atzera, 809/2014 (EE) Erregelamendujaren 3. artikuluan ezarritako mugekin.

9. artikulua.– Izapidetzea.

9.1 Behin eskabideak aurkezteko epea amaiturik, Mendi Zerbitzuak izapidetuko ditu espedienteak, eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta txosten tekniko bat emango du horren inguruan.

9.2 Espedientea izapidetu bitartean, dirulaguntza kudeatzen duen organoak bere esku izango du behar adina informazio eta dokumentu osagarri errekeritzea beharrezkoak diren datuak determinatu eta egiaztatzeko, ebazpen proposamena egitearren. Interesdunak ez badu ezer egiten izapide hori betetzeari dagokionez, 39/2015 Legearen 73. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

9.3. Foru Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak lehia bidez esleituko dira, oinarri hauetan jasotako balorazio irizpideen arabera.

9.4 Behin espedienteak aztertu ondoren, kide anitzeko balorazio organoak txostena jaulkiko du, ezarritako lehentasunen araberrako irizpideak aplikatuz eta aurrekontu baliagarritasuna kontuan hartuz egindako ebaluzioaren emaitza emanez. Orobat, hala badagokio, zehaztuko ditu espediente bakoitza ezesteko arrazoiak eta utziko du jasota du baietsitako espedienteek beharkizunak betetzen dituztela.

9.5 Honako hauek osatuko dute laguntzak esleitzeko Balorazio Organo Kide Anitzekoa:

Mendi Zerbitzuaren burua

Laguntzetako teknikari bat, Mendi Zerbitzu horretakoa.

Nekazaritza Teknikoko Idazkaritza Zerbitzuaren burua.

Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

10. artikulua.- Ebazpena eta jakinarazpena.





10.1 Foru organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarrean den araudian oinarrituta.

Hala, onartutako ebazpenek amaiera emango diote administrazio bideari, eta administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da haien aurka, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean, errekurtsio hori arautzen duen araudiari jarraituz, eta hargatik eragotzi gabe berraztertzeke errekurtsio nahierakoa aurkeztu ahal izatea.

10.2 39/2015 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa), ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabete izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epealdi hori igaro eta esanbidezko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, administrazio isiltasuna ezestekoa dela joko da, 38/2003 Legearen 25.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrituz (38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Orokorra).

10.3 Dirulaguntzak esleitzeko ebazpenek ezarriko dituzte, espediente bakoitzeko, zeintzuk diren esleitutako dirulaguntzen zenbatekoak, zehaztuko dute zein inbertsionetarako esleitzen diren eta zein den diruz lagundutako gastua, eta, orobat, zein den finantzaketaren jatorria. Ebazpena ezestekoa bada, arrazoia adierazi beharko da.

10.4 Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta, era berean, honako informazio hau guztia ere adieraziko da jakinarazpenean: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, diruz laguntzen den inbertsioa, diruz lagundutako inbertsioaren gastua, gauzatzeko epea, urteko kopuruak, eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoia.

11. artikulua.- Laguntzen ordainketa.

11.1 Dirulaguntza, beraz, inbertsioa egin ondoren ordainduko da, laguntzaren onuradunak ordaintzeko eskaera egin eta honako dokumentazio hau entregatu ondoren:

Egindako gastuen frogagiriak, jatorrizko ordainagiria eta haren kopia konpultsatzeko aurkeztuz. Jatorrizko ordainagiria zigilu batekin kontrolatuko da, zeinak adieraziko baitu Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso duela.

Ordainagiriak ordaindu izana egiaztatu beharko da jatorrizkoen bidez edo honako dokumentu konpultsatu hauen bidez: banku ziurtagiri jatorrizkoa, honako hauek zehaztuz: zenbatekoa, data eta ordainketaren onuraduna; transferentzia; ohiko postaz jasotako banku laburpen jatorrizkoak; kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, dagozkien mugimenduak ageri dituela; edo banku laburpen elektronikoak, posta elektronikoz edo agindu telematikoz jasoak, ordainketa edo transferentzia egiten duen bankuaren zigilua daramatela.

Nolanahi ere, 2.500,00 euro edo gehiagoko ordainketak egiaztatu egin beharko dira banku transferentziaren bidez edo beste banku titulu baten bidez, 7/12 Legearen 7. artikuluan ezarritakoari jarraituz (7/12 legea, urriaren 29koa iruzurra prebenitzeko eta eragozteko neurriei buruzkoa).



Dirulaguntzaren xede den makinaren matrikulazioaren justifikagiria, baldin eta matrikulatzea beharrezkoa izan bada.

Erantzukizunpeko adierazpena, xede bererako dirusarrerarik edo dirulaguntzarik jaso ez delakoa, edo, hala balegokio, xede horretarako jasotako beste dirulaguntza batzuen zerrenda, haien zenbatekoa eta zein erakundek eman duen adieraziz.

Organo kudeatzaileek eskatu adina dokumentazio.

11.2. Onargarriak edo diruz laguntzeko modukoak jotzen diren zenbatekoak hartuko dira ordainketa egiteko oinarritzat, behin ordainketa eskabideari dagozkion administrazio kontrolak egin ondoren.

Dirulaguntza ordaintzeko, egindako inbertsioa, diruz laguntzekotzat jotzen dena, handiagoa izan beharko da ezen ez diruz laguntzeko modukotzat jotzen den gutxienerako zenbateko 7.1 artikuluan determinatua.

Dirulaguntza ordaintzeko, zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharreran egunean egon beharko da.

12. artikulua.- Onuradunen betebeharrak.

Dirulaguntzen onuradunek, oro har, honako betebeharrak izango dituzte:

12.1 Emandako dirulaguntza onartzea eta eman zaion erabilera zehatzerako baliatzea, laguntzak esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera. Onuradunak ez badu jakinarazpena jaso eta hamar egun balioduneko epean idatziz eta espresuko adierazten uko egiten diola, adituko da onartu egin duela.

12.2 Makineria, bestalde, dirulaguntza esleitzeko ebazpenean adierazitako epean eskuratu beharko da.

12.3. Onuradunak gutxienez 7 urteko epe batean edukitzea erabileran eta jabetzan dirulaguntzaren xede den makineria. Epe horretan ezingo da eskatu dirulaguntzarik dagoeneko diruz lagundu den makinaren antzeko eginkizunetikiko makineriarako.

12.4. Dirulaguntzaren xede den makina nekazaritzako makineriaren erregistro ofizialean inskribatzea eta, beharrezkoa balitz, are matrikulatzea ere.

12.5. Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailari eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Kontuen Epaitegiari eskuratzea Foru Dekretu honen babesean jasotako dirulaguntzen inguruko informazioa, beren eginkizunetan dihardutela onuradunari errekeritzen diotena.

12.6 Europako Erkidegoko, Estatuko, autonomia erkidegoko eta foru erakundeetako araudiek ezarritako administrazio kontrol, tokian bertako kontrol, osteko kontrol eta kalitate kontrol guztiak igarotzea.

13. artikulua.- Arauak ez betetzea.



13.1 Entitate edo pertsona onuradunak honako foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo beharrezkoak diren betebeharrak guztiak bete gabe eskuratuz gero laguntza, galdu egingo du esleitutako dirulaguntza jasotzeko eskubidea eta, hala badagokio, itzuli egin beharko dizkio jasotako zenbatekoak Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interesei dagokien zenbatekoa ere, eta gutxitu egingo zaizkio laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharreko zenbatekoak, hargatik eragotzi gabe Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak ezarritakoa.

13.2. Foru Dekretu honen 12.3 artikuluan diruz lagundutako inbertsioari epe jakin batean eutsi beharraz ezarritako konpromisoa bete ezean, itzuli egin beharko da jasotako dirulaguntza, edo hainbanatu, eutsi ez zaion denbora tarte horren heinean.

13.3. Inbertsioa ez bada gauzatzen dirulaguntza esleitzeko ebazpenean ezarritako epean, galdu egingo da foru dekretu honetan aipatzen diren laguntzetako edozein jasotzeko eskubidea, dena delako inbertsio hori gauzatu behar zen deialdiaren ondorengo bi deialdietarako.

13.4. Itzultako zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrerak izango dira dagozkion lege ondorioetarako.

13.5 Dirulaguntza osoa edo haren zati bat itzuli beharra Nekazaritza Sailaren Foru Aginduen bidez ezarriko da, ikuskapen edo kontrol txostena eta dirua itzultzeko proposamena ikusi ondoren eta onuradunari entzun ondoren.

13.6.- Bereiz dira laguntza osorik edo partez itzultzeko prozedura eta 11/2016 Foru Arauan aurreikusitako arau haustek egiteagatik hasi beharrekoa (11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako lurralde historikoaren dirulaguntzei buruzkoa).

#### 14. artikulua.- Lege araubidea

Foru Dekretu honetan aipatzen diren dirulaguntzen onuradun diren pertsonak 11/2016 Foru Arauan ezarritako araudiaren pean egongo dira (11/2016 Foru araua, urriaren 19koa, Arabako lurralde historikoaren dirulaguntzei buruzkoa).

#### 15. artikulua.- Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

15.1 Foru Dekretu honetan arautzen diren laguntzekin batera jaso daitezke beste batzuk ere, erakunde publiko edo pribatu batzuek xede eta helburu horretarako bererako emanak .

15.2. Beste erakunde publiko eta pribatu batzuek xede eta helburu bererako emandako beste laguntza batzuen kasuan, zenbatekoa ezingo da izan handiagoa ezen ez onuradunek garatu beharreko jardueraren kostua edo dirulaguntzaren zertarakoaren kostua. Foru Dekretu honetakoekin batera beste laguntza horiek jasota gaintu egiten bada aipatu den muga hori, aldatu egingo da Foru Dekretu honetan aurreikusitako laguntzak esleitzeko ebazpena.

#### 16. artikulua.- Laguntzak finantzatzea.

Foru Dekretu honetan aurreikusitako laguntzetarako diru baliabideak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik etorriko dira, betiere deialdi bakoitzean ezarritako zenbatekoak direla muga.

